



Agoitzek berriro EZETZ sexu eraso

Berriz ere Agoitzek dena eman du sexu askatasunaren erasoak errefusatzeko. Oraingoan bi aldiz elkartu dira herrikoak, Udalaren babesarekin, Agoitzen sexu erasoak ez dituela onartzen esateko.

Jaietan, Agoizko herriko ehunka lagun kalera atera ziren, neska gazte batek gertakari baten inguruan egindako salaketa eta. Gazteak larunbateko gauean sexu eraso bat pairatu adierazi zuen. Udalak udaletxearen aurreko plazan elkartzeko deia egin zuen, eta 600 lagun baino gehiago elkartu ziren. Halaber, eraso mota horiek gertatzen direnean aplikatzen den protokoloa aktibatu zuen. Egindako deian, Udalak adierazi nahi izan zuen salatu zen moduko sexu eraso mota horiek ez onartzeko konpromisoa duela. Alde horretatik, Unai Lako Agoizko alkateak hitz batzuk esan zituen, EZETZ EZETZA dela argi uzteko. Elka-

rretartzera agertu zen Mertxe Lerañoz Nafarroako Berdintasunerako Institutuko zuzendaria. Elkarretaratzearen burutzan, sexu bortizkeriaren aurkako bi pankarta zeuden. Bildutakoei hamar minutuko isilunea eskatu zitzaion. Lakok herritar eta ostalari guztien inplikazioa eskertu zuen, gertakaria izan eta eman zuten erantzun tinkoagatik, eta Agoitzen ez dela inolako motatako eraso edo bortizkeria onartzen.

Beste gertaera batek ere eragin zuen Udaletxea urrean berriz elkartu behar izatea, Uhartan emakume bat hil baitzen bere senarrak emandako jipoiak eragindako kalteen ondorioz.

Modu horretan, Agoizko herritarrek eta udalak berriz ere agertarazten dute sexu askatasunaren aurkako erasorik ez onartzeko duten konpromisoa.



Mueve Aoiz-Mugitu Agoitz-en estreinaldia

Jaiaren aurretik zehar antolatutako ekitaldien artean, Angiluerreka elkarteak antolatzen duen film laburren lehiaketaren barnean hain zuzen ere, "Mueve Aoiz-Mugitu Agoitz" flashmoba proiektatu zen. Rut Etxartek, Edurne Mañúek eta Sonia Lambertok egin zuten filma, eta herriko

asko eta asko irrikan egon ziren azken hilabete hauetan gartzatzen joan inizatibaren emaitza ikusteko.

Kanpainaren helburua berdintasunean oinarritutako eta sexu erasorik ez duen Agoitz baten alde egitea da, dantza eta musikaren

bidez. Ideia Agoizko Udaleko Berdintasun Arloak bultzatu zuen, eta martxoan hasi zen, emakumearen egunaren karietara.

Udalak eskerrak eman nahi dizkie ekimen eder honetan aktiboki parte hartu duten pertsona eta kultur entitateei.

Jaietako balorazioa



Giro eta eguraldi onarekin iragan ziren jaiak, eta, gainera, herriko askok parte hartu zuten udalak antolatutako ekitaldietan.

Agoitz herri solidarioa, konprometitua eta dinamikoa dela argi gelditu zen txupina jaurtiki aurretik ere. Eta txupinazorako udalak pasa den urtean arlo horretan aritu diren pertsona eta kolektiboen lana errekonozitu nahi izan zuen, festei hasiera eman aurretik udaletxean egiten den ekitaldian. Agoizko Burrunba, guraso elkar-teak, Umafy-a, IAE-ekin kolaboratu duten herrikoak, jaietako kartelen irabazleak eta zenbait diziplinatan nabarmendu diren herrikoak: futbola, arkitektura, pilota edo artean. Aurelio León aretoan izan zen lehenengo aldiz.

Bi taldek konpartitu zuten jaiak



Identifikazio eskumuturrekoen banaketa

Agoizko Udalak eta Osasun zentroak, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamntuko laguntzarekin, pasa den sanferminetan hasitako kanpainarekin jarraitu nahi izan zuten, eta adin gutxikoen artean alergien aurkako eskumuturreko identifikatzaileak banatu zituen.



hasiera emate ekitaldia: batetik, Agoizko errefuxiatuen kolektiboa, haiek gaztelania ikas dezaten eskolak ematen dietenak eta Gurutze Gorriko (programaren koordinatzailea) ordezkariak; eta, bestetik, El ABC que salva vidas elkarteak.

Igandean, prozesioaren ondoren, dantzak eta erraldoiak, ohikoa den moduan. Eta arratsaldean Aspe enpresako pilotari profesional arteko pilota partidarekin gozatzeko aukera egon zen. Egutero, dantzaldian, Agoizko Ingurutxo dantzatzeko aukera izan zen, Agoizko txistulariei esker.

Astlehenean ospatu zen Haurren Eguna. 2017. urtean jaietako haurrei Udaletxe plazan banatu zitzaizen zupia, udaletxearen barnean dauden leku arazoak direla



eta; eta inoiz baino biziago suertatu zen.

Gazteek pila bat disfrutatu zuten bere egunean. Ohiko aktibitateez gain, aurten mozorrotzeko gonbitea egin zieten koadrilei; eta, gai moduan, filmak. Arratsaldean, plaza gainezka egon zen Puro Relajo taldearen emanaldiaren bitartean.

Eta asteazkena izan zen jaietako azken eguna, adinekoentzako gordetako. Parkean gitarra taldeak kontzertua eskaini zuen. Horretaz gain, zahar egoitzara ohikoa den bisitaldia egin zen eta bazkaria egin zuten. Plazako dantzaldia Agoizko musika talde berri batek eskaini zuen: Aztekek.

Eta Gaixoa Ni-n abestu zen moduan, 2019. jaietarako gero eta gutxiago falta da.



Aldi baterako kontratazioa, Izaga Gizarte Zerbitzu Mankomunitatean

Pasa den abuztuaren 20an bukatu zen Izaga Gizarte Zerbitzuko Mankomunitateko hezitzaile lanposturako izena emateko epea, lanpostua hutsik gelditu delako aldi baterako.

Nafarroako Administrazio Publikoko Estatutu eta Lan Hitzarmenenean ezarritako baldintzak aplikatuko zaizkio kontratatuko denari. Lanpostua eskuratu nahi duten izangaiek eskatutako baldintzak bete dituztela egiaztatzeko agiriak aurkeztu behar izan dituzte, ezarritako epearen barnean; baldintza horien artean Gizarte Heziketan Diplomaduna edo Lizentziaduna (edo titulazio baliokidea) izatea zen ezinbestekoa.

Bi e-mail helbide berri, Irati Mankomunitatean

Duela gutxi Irati Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitateak jakinarazi zuen, informatzeko erabiltzen dituen bideetan, helbide berri batzuk ezarri dituela, zerbitzuaren erabiltzaileei kudeaketa eta gestio hobe eskaini ahal izateko.

Hala, Konpostaje Zerbitzuarekin (Zeru Sarasola) harremanetan jartzeko, mezuak igorri daitezke helbide honetara: infocompost@rsuirati.es. Gune Garbia Zer-



Prozesuaren balorazioa (gaur egun balorazio prozesuan dago deialdia) honela egingen da: proba praktikoa dago; horretaz gain, izangaiaren lan esperientzia baloratuko da; eta, bukatzeko, elkarrizketa egingen da.

bitzuarekin (Iosu Ekisoain) harremanetan jartzeko, berriz, honakoa da erabili beharreko helbidea: infopuntolimpio@rsuirati.es

KONPOSTAJE ZERBITZUAREKIN
(Zeru Sarasola) infocompost@rsuirati.es

GUNE GARBIA ZERBITZUAREKIN
(Iosu Ekisoain) infopuntolimpio@rsuirati.es

Nafarroako Azpiegitura Berdea. Partaidetza prozesua



Nafarroako Azpiegitura Berdearen inguruko dokumentua prestatzen hasi da Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurune eta Toki Administrazio Lurralde eta Paisaia Zerbitzua, NASUVINSaren bidez. Horretarako egindako partaidetza prozesua azken hilabeteetan zehar egin da, zenbait herritan antolatutako jardunaldietan. Agoitz aukeratu zen Pirinioaldeko

jardunaldia egiteko, eta uztailaren 19an egin zen. Azpiegitura berdearen helburua babestutako espazioa edo korridore ekologiko izeneko kontzeptuetatik haratagokoa da; izan ere, maila guztietan eragina dauka: lurralde-arterkoan, probintzia mailan edo udalerrikoan. Eta honako elementu hauek kontuan hartzen ditu: ingurunea, arriskuen galarazpena, osasuna, ekonomia edo aisialdia, besteak beste.

Saioa hasteko, teknikarien taldeak orain arte egindako lana eta Azpiegitura Berdea diseinatze erabiltzen den metodologia adierazi zuten. Topaketaren bigarren parte, metodologia parte-hartzailea izan zuena, Azpiegitura berderako giltzarri diren espazioak identifikatzeko balio izan zuen. Horretaz gain, lurraldeen arteko loturak kudeatzeko kontuan hartu beharreko aukerak eta oztopoak aztertu ziren.

ETB-2-ko seinalea Agoitzera ailegatuko da irailean zehar



Berriki, Nafarroako Gobernuak erabaki du uda honetan hutsik gelditu den erkidegoko TDT kanala (NTB, hain zuzen ere) erreserbatzea, ETB-2ren seinalea zabaltzeko. Hala, gazteleraz emititzen duen Euskal Erkidego Autonomoko entitateko kanalaren seinalea irailean hartu ahalko da foru erkidegoko lurralde osoan, 26. kanalean (Nafarroari dagokiona), hain zuzen ere.

Ana Ollo Herritar eta Institutio Harremanetarako kontseilariak adierazitakoaren arabera, erabakiak "herritarrek egindako eskariari" erantzuten dio, bere esanetan, "milaka herritarrek" eskatutakoa izan da euskal telebista publikoko bigarren kanala Nafarroa osoan hartu ahal izateko arrazoia.

Datozen egunotan jakinaraziko da neurria martxan jarriko den data zehatza. Ondoren, ikusleek berriz sintonizatu beharko dituzte haien TDT gailuak, seinale berri guztiak hartu ahal izateko. «Modu horretan ahalmentzen da kanala Nafarroa osoan zehar hedatzea, Nafarroako ogasunerako diru karga izan beharrik gabe», adierazi zuen kontseilariak.

Musika Eskolako matrikulazioak

Agoizko Udal Musika Eskolak urterik urte musika ikasi nahi duten ikasle gehiagoren matrikulak ditu. Datorren ikasturterako, gehieneko matrikula kopurura ailegatu da, eta 108 ikaslek parte hartuko dute eskolan ematen diren ikasgaietan. 31 matrikula berri gehiago daude: 15 en Musika eta Mugimendua izeneko ikasgaietan (4 eta 5 urteko haurrentzakoak), 14 Musika Hastapenak izenekoan (7 urtetik gorakoentzako) eta 2 pertsona heldu.

Azpimarratzekoa da honako instrumentu hauetarako matrikula egiteko aukerarik ez dela eman, eskatuenak direlako: pianoa eta gitarra. Bidenabar, ikasleek matrikula gutxiago dituzten beste instrumentuak aukeratzea bultzatu nahi da. Neurri hori hartuta ere, aurten ez du inork saxofoia aukeratu, eta, beraz, instrumentu hori ikasteko eskolako eskaintza eta etorkizuna arriskuan dago.

Uztaila eta abuztuko kultur programa. Balorazioa



Uztaila eta abuztuan zehar, tartean herriko festak izan badira ere, udalaren kultur aktibitateak bere martxa jarraitu du. Kultur Etxean ikusgai egon da Euskal Memoria Fundazioak antolatutako "Gogoan hartzeko izenak" argazki erakusketa. Joseba Zabalza argazkilaria Euskal herriak azken hamarkadetan

bizi izan duen gatazka politiko eta armatuaren isildutako biktimen inguruko lana biltzen du.

Kultur Etxean ere ikusgai egon ziren jaietako lehiaketara aurkeztutako kartelak. Patxi Huartek emandako "Udan plastikatzen" eskulanean tailerlean egindako lanekin batera.

Mariano García musika bandak udan ematen ohi duen kontzertua eskaini zuen aurten ere, gainezka bete zen plazan. Agoizko gaitariak, berriz, kaleak animatu zituzten uztaileko azken ekitaldian.

Angiluerrekak berriro antolatu zuen Garagardoaren Festa, eta, beti bezala, arrakastatsua suertatu zen. Ekitaldiak urterik urte parte hartzaile gehiago izaten ditu. Merkatuko plazan, garagardo goxoak, musika ona eta belaunaldi askotako jendea.



Argazkilaritza lehiaketa



Irailaren 21ean, 13:00etan, bukatuko da Agoizko udalak antolatutako argazki lehiaketara lanak

aurkezteko epea. Udal bulegoetan aurkeztu beharko dira argazkiak.

XIII. edizio honetan, bi modalitate daude:

1. Orokorra: Lehiaketaren lehen saria jasoko du, eta parte hartu nahi duen ororentzat zabalik dago.
2. Herritarren saria: mugatuta egonen da Agoitzen erroldatuta daudenei.

Argazkien gaia Agoitz hiria izanen

da: paisajea, hirigintza, Ondarea, ohiturak, jaiak, jendea... Argazkiak originalak izango dira, argitaratu gabeak eta beste lehiaketaren baitan saririk jaso ez dutenak. Zuri-beltzean nahiz koloretan aurkeztu ahal dira.

500 euroko saria dago modalitate orokorreko irabazlarentzat eta 300 eurokoa herritarren sarirako.

Informazio gehiago: www.agoitz.eus

Udal kirol programako ikastaroak

Kanpondoak eta Udalak 2018-19 ikasturterako eskaini duen udal kirol programan parte hartu ahal izateko izen-ematea zabalik dago heldu den irailaren 21a arte.

Kirol-guneko harrera tokian egin behar da. Informazioa nahi duenak 948 33 67 06 telefono zenbakian deituta eskatzea du, edo, baita info@kanpondoa.es idatzita edo www.kanpondoa.es web-gunean ere.



Euskal selekzioen aldeko mendi martxa Agoitzera heldu zen



Aurten, uztailaren 24tik abuztuaren 4ra, "Nafarroatik mundura" lemapean, ohiko mendi martxa egin zen, Euskal selekzio ofiziala izateko beharra ikustarazteko. Agoitz aukeratu zuten edizio honen bukaerarako, Sartagudan, San Martin Unxeokan, Kasedan eta Irunberrin geldialdiak egin ondoen.

Dagoeneko 17 edizio ospatu dira, eta haren helburu nagusia kirol arlo guztietako Euskal Selektzioaren ofizialitatea aldarrikatzea da, hala nola nazioarteko lehiaketetan parte hartzeko eskubidea aldarrikatzea.

Kostradaren XX. Lasterketa

Agoitzen, festak hasi aurretik eta ohikoa den moduan, Kanpondoak, Agoizko udalaren eta herriko zenbait enpresaren laguntzarekin, Kostradaren XX. lasterketa ospatu zen.

Lasterketak bi kategoria izan zituen, haurrentzakoa eta helduena. Lehena 18:00etan hasi zen, eta haurren artean urduritasuna eta emozio biziak sumatzen ziren. Parte hartzaile guztiek saritxo bat jasotzen zuten, eta bukatutakoan argazki bat egin zen, etorkizunean Agoizko korrikalariak izanen diren parte hartzaile horiekin guztiekin.

19:15ean hasi zen proba absolutua. Ia 100 partaide izan zituen, horietako erdia, herrikoak. Maila handiko lasterketa izan zen, eta bertan Cristóbal Galera (mundialetara joanen da) gertatu zen irabazle, gizonezko kategorian. Emakumezkoen kategorian, berriz, Irene Guembe izan zen irabazlea. Herri mailako kategorian, Rita Jiménezek eta Rubén Morillok lortu zuten garaipena.

Eguraldiak lagundu zuen eta arratsaldea atsegina gertatu zen. Nabarmentzekoa da inskripzio gehiago izan zirela, kategoria guztietan, hala nola ibilbide osoan egon zen giro ona.

Kanpondoak eta Udalak eskertu nahi dute boluntario guztien laguntza, Kostradaren Lasterketaren edizio hau ere arrakastatsua gerta zedin.



Euskaraldia

Duela denboraldi bat iragartzen ari garen moduan, Agoizko Udalak, Euskararekin lotura duten entitateen laguntzarekin, Euskaraldian parte hartzeko izena eman zuen. Euskal Herri mailako ekimena da, 11 egunez euskararen erabilera bultzatzea helburu duena.

Proiektua azaroaren 23tik abenduaren 3 bitartean gauzatuko da, eta haren helburuak dira, batetik, euskarari bultzada ematea eta, bestetik, hitz egiteari beldurra kendu eta pertsonen arteko euskarazko harremanak sendotzea.

Horretarako bi hiztun profil mota daude:

- Ahobizi: Euskaraz hitz eginen dut ulertzen duten pertsonekin, nahiz eta haiek gaztelaniaz erantzun. Ezagutzen ez ditudan pertsoneri lehen hitza euskaraz eginen diet.

- Belarriprest: Hitz egidazu euskaraz, ulertzen dut eta. Euskaraz edo gaztelaniaz erantzunen dut, baina niri euskaraz egitea nahi dut.

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra arte txapa identifikatzaile bat era-

menen dugu soinean, Ahobizi edo Belarriprest garen jakin dezaten. Ea ohiturak aldatzen ditugun!

NOLA EMAN IZENA? Izen emateko epea irailaren 20an hasiko da. Aurki jakinaraziko dizuegu nola eta non egin behar den. Parte hartzeko bi baldintza bete behar dira: 16 urte gorakoa izatea eta euskaraz egiteko edo ulertzeko gai izatea. Baldintzak betetzen badituzu, bakarrik erabaki beharko duzu Ahobizi edo Belarriprest zaren. Animatu, eta parte hartu!

Dani Pérezen oroimenean

Sanferminetako azken egunean berri txar batekin altxatu ginen: Daniel Pérez Indurain, EHBilduko zinegotzia eta erkidea Irunberriko Udalean, trafiko istripu batean zendu zen Cordovillaren inguruan bere motorrarekin zihoanean. 34 urte zituen.

Danielen heriotza galera garrantzitsua izan da Irunberriko EH Bilduko udal taldearentzat. Azken

hauteskundeetan zerrendaburu aurkeztu zen, lehen aldiz, eta kandidaturak inoiz izandako emaitzarik hoberenak lortu ziren: bi zinegotzi.

Herriko lanarekiko oso saiatua eta motibatua beti, nabarmendu izan zen gazte eta kultura arloetako kolektiboetan, eta bertan egindako lana aitortu izan diote beti. Goian Bego Dani!